



Arartekoaren ebazpena, 2009ko martxoaren 30ekoa. Horren bidez, Trapagarango Udalari gomendatzen zaio eman dezala udal erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria, familia bateko kide guztiak udalerriko biztanle gisa onar ditzala, familiak errentan hartuta duen etxebizitza okupatzeko jarduerak kudeatzen parte har dezala eta gizarte bizikidetasun normalizatua susta dezala.

Aurrekariak

1. Arartekoak ofizioz ekin zion kazeten bidez jasotako informazioari lotutako jarduketari; informazio horren arabera, familia bati Trapagarango udalerriko erroldan erregistratzea ukatzen zitzaion polizia-auziak izateagatik. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, zeinen bidez Arartekoaren erakundea sortzen eta arautzen baita, xedatzen du Arartekoak euskal herri administrazioek egindako ekintzak edo jokabideak argitzeko ikerketa hasi eta burutu ahalko duela. Erakundearen ustez, erroldan erregistratzea ukatzeko zioei buruzko informazioa oso kezagarria zen, egunkariak adierazten zutenaren arabera, Udalak informazio babestua zerabilelako, hura, gainera, udal erroldan erregistratzea ukatzeko ziorik izan gabe.
2. Familia Sestaotik iritsi zen, Udal horrek familiei berriro bizilekua ematea zekarren gizartea eta hirigintza biziberritzeko prozesua abiarazi zuelako. Eusko Jaurlaritzak (...)n esleitu zion etxebizitza, alokairuan. Erabakiak auzokoan arbuioa eragin du, Sestao udalerriak dauzkan zailtasunetako batzuk bertan pizteko beldurragatik.
3. Erakunde honen jardunean ohikoa denez, esku hartu duten hiru herri administrazioei, hots, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, Trapagarango Udalari eta Sestaoko Udalari, informazioa eskatu zien idatziz. Administrazio horiek familiari bizileku berria emateko prozesuan izandako jokabidea eta administrazioen arteko elkarlana burutzeko modua ezagutu nahi ziren. Informazio eskaeran arestiko hiru administrazioekin biltzeko aukera proposatu zen, irtenbidea bilatzeko.
4. Trapagarango Udalak eta auzokoek (...) familia (...)n bizitzeari uko egiteko emandako zioen artean Sestaoko gizartea eta hirigintza biziberritzeko prozesuari buruzkoak zeuden. Gizarte eta hirigintza zaharberritzeko prozesu horrek Arartekoaren kexa txosten bat ekarri zuen, eta hura aztertu ondoren, Administrazioei ondorioak eta gomendioak paratu zitzaizkien (Arartekoaren ebazpena, 2006ko azaroaren 6koa, zeinen bidez Sestaoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Udal arteko Harreman eta Hirigintza Sailari Sestaoko Udala biziberritzeko prozesuari buruzko ondorioak eta gomendioak jakinarazten baitzaizkie). Eusko Legebiltzarrak, 2002ko azaroaren 8an, Sestao udalerrian premiaz jokatzeko





beharrari buruzko ez-legezko proposamen bat adostu zuen. Udalak dauzkan premiei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukala eta, beraz, erakundeen arteko elkarlana oso beharrezkoa dela onartzen da bertan. Elkarlan hori honakoetan zehaztu zen: Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren artean hartutako konpromisoak, Sestao Bai SA eta Sestao Berri SA elkarteen eraketa, eta udalerriko gizartea eta hirigintza biziberritzeko gida-planaren prestaketa.

5. Hiru Administrazioek onartu zuten bilera proposamena. Hasieran finkatutako eguna otsailaren 19a izan zen. Eusko Jaurlaritzako eta Sestaoko Udaleko ordezkariak hitzorduan agertu ziren. Sestao Berri elkarteko gerentea ere agertu zen. Trapagarango Udala ez zen agertu, gaizki ulertu bat dela-eta; beraz, beste bilera batera deitu zen, eta agenda arazoak tarteko, martxoaren 5 arte atzeratu zen. Bilerara, erakunde ordezkariak ez ezik, herriko alkatearekin batera, (...)ko auzoko elkarteko ordezkaria ere agertu zen; ordezkaria auzo horretako Lurralde Kontseiluko lehendakariordea da.
6. Bileran Administrazioek prozesuan izandako esku-hartzea azaldu zuten. Datu garrantzitsu bat dago: Sestaoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak familiari aldi baterako (...)n bizileku berria ematea proposatu zuten, eta horrela erakundeek, Sestaon etxebizitza berriak eraikitakoan, familia jatorrizko udalera itzultzea ahalbidetzeko konpromisoa hartzen zuten. Trapagarango Udalak ez zuen proposamena onartu eta, auzoko elkarteko ordezkariarekin batera, familia (...)n esleitu zitzaion etxebizitzan bizitzeko ezadostasuna agertu zuten, ezta aldi baterako ere.
7. Trapagarango Udalari egindako informazio eskarian, aipatu Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko Ebazpenari, zehazki 3. eta 4. gomendioei, erroldako erregistratzea arautzen duen lege erregimenari eta datuen babesaren gaineko arautegiari buruzko alde zuzeneko gogoeta batzuk aurreratu genituen.
8. Administrazioek idatziz erantzun zioten informazio eskaerari:

Sestaoko Udalaren erantzuna:

“1. Respecto al realojo de la familia formada por D. (...) y D^a (...), debo señalarle que esta familia está realojada en un (...) de Trapagaran, desde el mes de julio de 2.007, procedente del derribo de (...).

2. El realojo definitivo se hace por este alcalde cumpliendo los compromisos existentes y aplicando el protocolo, es decir yo llamo a la Alcaldía de Trapagaran, como no está el alcalde hablo con la primer teniente de alcalde que es informada de la operación y me pone en contacto con una asistente social, cuyo nombre traslado al director de Sestao Berri que es la empresa que gestiona los realojos.





3. Desde Sestao Berri se mantienen distintos contactos y todo se hace correctamente hasta que se va a proceder a su inclusión en el censo, momento en el que se genera la polémica que todos conocemos.

4. Por nuestra parte no hay ningún inconveniente en mantener las reuniones que sean necesarias puesto que siempre hemos actuado con todos los municipios con absoluta transparencia.

5. Respecto al historial delictivo de ambas personas, mas allá de que debe respetarse la privacidad del mismo, debo señalar que los datos periodísticos no se ajustan a la verdad, tal y como se adjunta en documento anexo.

6. Respecto a la problemática de los realojos, señalar que los mismos se están haciendo de acuerdo con el Plan Director y la legislación urbanística de aplicación. Por tanto entendemos que estamos cumpliendo todas las obligaciones que nos vienen impuestas”.

Trapagarango Udalaren erantzuna:

“Con fecha 11 de noviembre de 2008, D. (...) presenta escrito en el Registro General del Ayuntamiento donde pone de manifiesto que habiéndose personado con su mujer y con un contrato de arrendamiento de la vivienda sita en la calle Facundo Alonso, 5-1' C de este municipio y el resto de documentación necesaria los días 29 de octubre, 6 de noviembre y 7 de noviembre para proceder al empadronamiento de su unidad convivencial y por no haber podido ejercer este derecho por negativa de dicho Ayuntamiento en presencia de Sestao-Berri, solicita ser empadronado a la mayor brevedad posible, al objeto de poder hacer uso de la vivienda adjudicada por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco (...) (se aporta como documento nº 1).

- El 27 de octubre de 2008, la Asociación de Vecinos de (...) solicita que en la reunión del Consejo Sectorial de (...) a celebrarse el 10 de noviembre de 2008, se trate el asunto de "Rumores de la llegada de tres familias conflictivas a las denominadas casas de Madrazo" (se aporta como documento nº 2).

- El 10 de noviembre de 2008, en la sesión del Consejo Sectorial de (...) se trata en el punto no 2, el tema de la llegada de nuevos vecinos (se aporta como documento nº 3).

- El 12 de noviembre de 2008, la Concejala de Relaciones Ciudadanas remite al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, a la atención del Sr. Madrazo, solicitud de fijar fecha y hora para tratar el asunto de realojo de una familia en las viviendas sociales de (...), solicitando que en esa reunión este presente el Gobierno Vasco, la Asociación de Vecinos y la Alcaldía (se aporta como documento nº 4).





- El 19 de noviembre de 2008, la Asociación de Vecinos de (...) presenta las 3372 firmas recogidas en apoyo a los vecinos de (...), en su lucha contra la imposición del realojo de la familia conflictiva proveniente de Sestao (se aporta como documento nº 5)

- El 9 de diciembre de 2008, la Asociación de Vecinos de (...), pone de manifiesto que en la reunión celebrada el 5 de diciembre de 2008, se insta a los 5 representantes de dicha Asociación en el Consejo Sectorial, soliciten con carácter urgente una reunión monográfica sobre el tema de realojo de las personas conflictivas provenientes del municipio de Sestao (se aporta como documento nº 6)

- En la sesión celebrada por el Consejo Sectorial el 15 de diciembre de 2008 se trata en el punto no 2, el realojo de personas provenientes de Sestao (se aporta como documento nº 7)

- El 15 de diciembre de 2008, la Asociación de Vecinos de (...) presenta otras 1697 firmas más recogidas con la misma finalidad que las anteriores (se aporta como documento nº 8)

- El 9 de enero de 2009, emite informe el Suboficial de Policía sobre la situación de D. (...) y Dña. (...), donde pone de manifiesto que residen en el (...), sito en (...) de Valle de Valle de Trápaga-Trapagaran desde agosto de 2007 y que los gastos de alojamiento corren a cargo de Sestao-Berri (se aporta como documento nº 9)

Por último concluir que en cuanto a la oportunidad de celebrar una reunión en la que estén presentes las Administraciones afectadas, comunicarle que se considera que es conveniente que la misma se celebre a la mayor brevedad posible, no existiendo inconveniente alguno en que se celebre en las dependencias del Ararteko de Vitoria o Bilbao”.

Eusko Jaurlaritzaren (Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza) erantzuna:

“1.- El día 29 de marzo de 2007 tuvo entrada en este Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales solicitud del Ayuntamiento de Sestao para la adjudicación por orden de excepción de una vivienda en alquiler para la familia (...). Tras entrevista con la familia, contraste de informe social y junto al equipo social de Sestaoberri se decidió optar por una propuesta para separar las dos unidades convivenciales. La madre y los menores a su cargo por un lado y su hijo (...), su mujer e hijos por otro. De este modo, Dña. (...), la madre, se aloja en una vivienda en alquiler en el municipio de Muskiz sin que hasta el día de la fecha se haya detectado conflicto vecinal alguno y D. (...) y su familia son adjudicatarios en el barrio de (...) en el municipio de Trapagarán.

Este proceso de adjudicación excepcional esta regulado en el apartado 3 del artículo 12 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de





viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo y se establece, entre otros colectivos, a los vecinos de ámbitos de actuación en zonas degradadas. Asimismo, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales y en base a lo dispuesto en el apartado 2 del citado artículo 12 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, pueden excluirse de los procedimientos generales de adjudicación aquellas viviendas que fueran necesarias para hacer frente a situaciones de necesidad específica de vivienda. Es con este parque, y con el de Bizigune (Programa de Vivienda Vacía), con el que este Departamento cuenta para responder a estas situaciones específicas.

2.- Sobre el proceso de comunicación con el Ayuntamiento de Trapagarán hay que decir que la gestión del cambio de municipio se realiza siguiendo un protocolo de actuación acordado entre Gobierno Vasco y Sestaoberri: se transmite toda la información con total transparencia, con tiempo suficiente (antes de que esta familia fuera a vivir a esta vivienda), respetando la jerarquía municipal y trasladando la información necesaria a cada persona en función de su rol y función (Alcalde Sestao con alcalde de Trapagarán, Gerente de la sociedad Sestaoberri con concejala delegada y trabajadoras sociales de esta sociedad pública con trabajadoras social del servicio social de base del Ayuntamiento). Tal y como nos transmite Sestaoberri, el alcalde de Trapagarán recibe la información y devuelve conformidad. La concejala renuncia a mantener la reunión de coordinación y delega en las trabajadoras sociales. Estas trabajan en equipo desde el primer momento con el equipo de profesionales del municipio derivante.

3.- En el ánimo de casar oferta de vivienda en el municipio con las necesidades de vivienda acreditadas se han dado los siguientes pasos por parte del Departamento:

- En la promoción del barrio de (...), en el municipio de Trapagarán, se detraen del procedimiento de adjudicación dos viviendas, en virtud del antedicho artículo 12-3 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo. Una de ellas se adjudica a vecinos del propio municipio a solicitud del propio Ayuntamiento y la otra vivienda es la que se adjudica mediante Orden del Consejero a la familia (...). - Anteriormente el Ayuntamiento de Trapagarán sólo ha solicitado en una única ocasión la atención de una necesidad específica mediante la adjudicación directa de vivienda. El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales fue favorable a dicha adjudicación si bien, finalmente, no fue necesaria su materialización puesto que la familia para la que se solicitaba dicha medida resultó adjudicataria de vivienda por los medios ordinarios (sorteo).

4.- Tal y como también aparece en los medios de comunicación, la Concejala de Relaciones Ciudadanas pide una reunión con el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales en la que también tomaría parte la asociación de vecinos que se está manifestando de manera periódica en contra de la adjudicación realizada por este Departamento.

El conjunto de personas que conformamos el equipo responsable de esta Consejería nos reunimos de manera muy habitual con la iniciativa vecinal para contrastar diferentes percepciones y escuchar sus opiniones. En este caso entendimos que no éramos los interlocutores apropiados por los argumentos





que hemos presentado en este texto. Además rechazamos algunas actitudes que detectamos en la movilización vecinal contra una familia.

5.- Con esta adjudicación de vivienda el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales ha respondido a una solicitud concreta del Ayuntamiento de Sestao. Además la Orden de excepción que recoge a (...) como municipio de acogida es posterior al propio consentimiento del Ayuntamiento de Trapagaran.

6.- Como conclusión, este Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales quiere exponer las diversas razones por las que el conflicto generado como consecuencia de esta adjudicación de vivienda:

- La repercusión mediática que se deriva de todos estos hechos puesto que la familia adjudicataria se está viendo afectada y está siendo diana de noticias de prensa y movilizaciones en su contra.

- La negación del derecho a empadronarse a la citada familia con las consecuencias derivadas de este hecho, recogidas ya por el texto de la oficina del Ararteko que nos convoca a esta reunión.

- La utilización de información sensible y personal, en relación con esta familia, de manera totalmente imprecisa al referirse a "57 causas policiales" generando mayor inseguridad en el vecindario y el municipio en general.

En un momento social donde las diferencias socioeconómicas siguen creciendo es objetivo de este Departamento construir comunidades de vecinos/as y barrios donde las personas y familias de diferente extracto se encuentren y convivan. Estas actitudes y rechazos, basados en el prejuicio, en caso de conseguir sus objetivos pueden suponer precedentes que apunten hacia una sociedad compartimentalizada y generadora de guettos y desencuentro”.

9. Arartekoa (...)ko auzokoen ordezkariekin ere bildu zen. Auzoan zegoen gizarte alarmaren eta elkarbizitza eta herritarren segurtasuna hondatzeko beldurraren berri eman zitzaion erakundeari bileran. Auzokoek adierazi zutenenez, (...) auzoaren beste herriguneeen arteko urruntasunaren ondorioz, herritarren babesa zaila zen, eta horregatik zeukaten irtenbide bakarra familia auzoan bizitzea ekiditea zen. Bukatzeko, adierazi zuten (...)ko pertsona bat zegoela, beste herri batean bizi eta etxebizitza egokirik ez zeukana, eta hori dela eta ulertzen zuten etxebizitza pertsona hari esleitu behar zitzaiola.

Hori guztia ikusita, emandako gogoetak eta informazioak aztertu ondoren, honako gogoetak igortzeari egoki iritzi diogu

Gogoetak





1. Arartekoaren zereginen artean pertsonen eskubideak, Herri Administrazioei dagokienez, defendatzea dago. Kexen azterketei dagokienez, batez ere kexatxostena eragin duen administrazioaren jokabidea ordenamendu juridikoaren arabera den baloratu behar da. Botere publikoen erabakiek lege arautegiaren arabera izan behar dute eta legez ezarritako prozeduraren arabera hartu behar dira: *"Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude."* KEko 9. art.; *"Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez."*, KEko 103. art.
2. (...)en familiak Trapagaran udalerriko udal erroldan izena ematea eskatu du, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Alokabide, alokairu-sozietatearekin, etxebizitzaren jabea den aldetik, sinatutako alokairu kontratua aurkeztu du. Erregistratzeko eskaerarekin batera Trapagarango Udaleko erakundeen ordezkariak familia (...)n bizitzearen aurka egindako adierazpenak aurkeztu dira. Arbuioa jarraitutako prozesuari lotuta dago. Beraz, alde batetik bizileku berria emateko prozesua eta, bestetik, Trapagarango Udalaren jokabidea aztertu behar dira.

Bizileku berria emateko prozesuari dagokionez, erakunde hau, hasteko, Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko Ebazpenari lotzen zaio. Bertan (3 eta 4. gomendioak), Arartekoak gomendatu zuen Sestaoko antolamendu berriak eragindako pertsona guztien egoerari aurre egin eta etxebizitza arazoari erantzuna eman behar zitzaiola, batez ere, lurzuari emango zaion erabilera higiezin merkatutako edota hiriarentzako azpiegitura berrietarako etxebizitza normalizatuak eraikitzea izanda. Adierazi genuenez, etxebizitza emateak bizilekua Sestaotik kanpo ematea ekarriz gero, erabakia familiaren gizarte inguruabarren eta haren kideen hezkuntza premien arabera eta haren nahia aintzat hartuz baloratu behar zen. Bukatzeko, honakoa ere adierazi genuen: *"Garrantzitsua da erabaki horren ondotik ghetto berriak ez sorraraztea, edo gizartearen gutxiespeneko mobilizazioak ez ekartzea. Horretarako, bestelako neurriak ere hartu beharko dira, esate baterako, gizarte lagun-egitea edo gizarte sentiberatzeko komunitate lana"*.

Familia horren etxebizitza arazoari emandako erantzuna haren gizarte inguruabarren, haren kideen hezkuntza premien arabera eta haren nahia aintzat hartuz izan da. Era berean, gizarte-laguntza jasotzen ari da, eta horiek guztiak kontu garrantzitsuak dira pertsonen eskubideei eragiten dietelako.

Hala ere, bizileku berria ematerakoan gizarte arbuiozko gizarte mobilizazioak gertatu dira, eta hori oso kezagarria da eta agerian uzten ditu Sestaon burutzen ari den prozesu motak dakartzan ondorioak; holakoetan garrantzitsua da gizarte sentsibilizazioa sustatu beharra aintzat hartzea. Zentzu horretan, eta Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko Ebazpeneko 6. gomendioan adierazi legez, *"Erakundeak modu argi eta tinkoan kokatzea edozein motatako diskriminazioaren aurrean, ezinbestekoa da berdintasunezko kultura sustatzeko"*. Mobilizazioek giza eskubideen ikuspegitik eta gizarte sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko gizarte politiken xedeari buruz eztabaida publikoa sustatu beharra agertzen dute.





3. Erakunde honek eskura daukan informazioaren arabera, familiari Trapagaran udalerrian etxebizitza berria emateko prozesua ordenamendu juridikoaren arabera burutu da. Gainera, Sestao Berri elkarteak bizileku berriak emateko ezarritako protokoloari jarraitu zaio, eta horrek nahastutako hiru administrazioen ezagutza eta parte hartzea dakartza. Elkarte horren agirien arabera, Sestaoko Udalak familiari (...)ko etxebizitzan bizileku berria emango zitzaioela jakinarazi zion Trapagarango Udalari, eta maila teknikoan, bizileku berria ematea kudeatzen duen Sestao Berri elkarte eta gizarte zerbitzuak harremanetan jarri ziren; horrela, 2008ko uztailaren 24an, bilera bat burutu zen Udaleko gizarte zerbitzuekin, eta bertan Sestao Berriko langileek hartu zuten parte. Bileran, Sestao Berri eta Trapagarango Udaleko gizarte zerbitzuek gizarte esku-hartzea koordinatu zuten.

Horietatik guztietatik ondorioztatzen da Trapagarango Udalak etxebizitza esleitzeko agindua baino lehenago zekiela (...)n Sestaotik zetorren familia bat biziko zela. Baita Alokabiderek sinatutako alokairu kontratu baten maizterra izango zela ere.

Igorri digun informazioan, Trapagarango Udalak ez ditu aipatzen erakundeen arteko alde zuzeneko koordinazio hartu-eman horiek; aitzitik, bere kontakizunean, 2008ko urriaren 27an (...)ko auzoko elkarteak biltzeko egindako eskaera edo 2008ko azaroaren 11n udal erroldan erregistratzeko eskaera eta familia iristearen aurka aurkeztutako bilerak eta sinadurak aipatzen ditu; haiek denak etxebizitza esleitzeko aginduaren ondorengo jarduketak dira. Sestaoko Udalak, igorritako informazioan, ordea, alde zuzeneko hartu-eman horiek aipatzen ditu.

4. Bizileku berria emateko prozesuak zenbait administrazioi eragiten die; horregatik, garrantzitsua da Herri Administrazioen arteko harremanak zuzentzen duen erakundeen arteko leialtasun printzipioa kontuan hartzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea: 4. artikulua. Herri-administrazioen arteko harremanen printzipioak:
- "Herri-administrazioek beren jardunean eta elkarrekiko harremanetan erakundeen arteko leialtasunaren printzipioaren arabera jokatu behar dute, eta, beraz, hau egin behar dute:*
- a) Gainerako administrazioek beren eskumenak zuzenbidearen arabera erabiltzea errespetatu*
 - b) Ongi neurtu, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioek kudeatu behar dituztenak*
 - c) Gainerako administrazioei, beren eskumenak baliatuz darabilten jarduerari buruz behar duten informazioa eman*
 - d) Norberaren eremuan lankidetzeta eta laguntza aktiboa eskaini gainerako administrazioei, beren eskumenak modu eraginkorrean baliatzeko eskatzen dutenean."*





Laburbilduz, artikulua xedatzen du Herri Administrazioek elkarlanean jardun eta ekintzak burutzen elkarri lagundu behar diotela. Kasu honi dagokionez, printzipio horren erabilerak, hasteko, Eusko Jaurlaritzak Trapagarango Udalaren elkarlana eskatzeko bidezko titulua daukan aztertzea eskatzen du. Baita aldez aurretik ezarritako legezko prozesuari jarraitu zion ere.

Azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuak, zeinen bidez Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala xedatzen baita, Sailaren zereginak arautzen ditu. Bertan xedatzen denez, lurzoru, hirigintza, etxebizitza, arkitektura, plangintza, herritarrentzako arreta eta etxebizitzari lotutako laguntzen eta eraikuntzako berrikuntza eta kalitatearen sustapenari lotutako saileko eskuduntzak erabiltzea dagokio. Hondatutako hiriguneak eta birgaitze integratuko areak biziberritzea bultzatzea eta sustatzea, esleitzeko prozedura orokorrari lotutako babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenaren salbuespena ezartzea eta titulartasun publikoko etxebizitzak administratzea eta kudeatzea ere dagozkio.

Etxebizitza martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes publikoko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitza eta lurzoru kontuetako finantza neurriei buruzkoa betez esleitu zen. Artikulu horrek babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen du. 12.3 artikuluan honakoa xedatzen du: "*Era berean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez, etxebizitza esleitzeko prozeduratik salbuetsi ahal izango dira terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak eta degradatutako eremuetako biztanleak –halakotzat hartuko dira berariazko araudian jasotakoak–, baita premia bereziko egoeran dauden beste kolektibo batzuetakoak ere, baldin eta kolektibo horiek sektorean indarrean dagoen araudiak definitu baditu, haien premiak etxebizitzarekin zerikusirik badu, eta betiere kolektibo horien eskubideak babesteko erakunde eskudunak hala egiaztatzen badu. Halaber, esleitzeko prozeduratik salbuetsi ahal izango dira Administrazio Publikoak, Hirigintza Birgaitzeko Elkarteak eta irabazi-asmorik gabeko Entitate Pribatuak, zuzeneko esleipenen kasuan.*"

Eusko Jaurlaritzak arautegian xedatutako salbuespeneko prozeduraren bidez esleitu dio etxebizitza familia bati. Familia Sestaon bizi zen baina Sestao udalerrian bizi ziren etxebizitza hirigintza aurrin jo ondoren bizilekurik gabe zegoen. Familiari Sestao Berrik lagundu dio; Sestao Berri Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta Sestaoko Udalak osatzen dute eta Sestao, Ipar Industrialdeko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketak eragindako hirigintza arloetatik datozen bizileku berriak ematea kudeatzen du. Sestao Berriko gizarte esku-hartzeko talde teknikoak gizarte orientabide, laguntza eta jarraipen lana egiten ari da egun mantentzen duen familiaren premientzat.

Eusko Jaurlaritzak, beraz, arestiko arautegiak emandako zereginak betez jokatu du eta bere jabeagoko etxebizitza bati dagokion alokairu kontratua sinatu du. Hortaz, titulu juridiko balioduna dago eta haren bidez eskatu diote laguntza Trapagarango Udalari Eusko Jaurlaritzak eta Sestao Berri elkarteak.





Trapagarango Udalak Eusko Jaurlaritzari lagundu behar dio erakundeen arteko leialtasun printzipioaren arabera, zeinek honakoak eskatzen baititu:

- 1- Eusko Jaurlaritzak bere eskuduntzei ematen dien legezko erabilera errespetatu.
- 2- Norberaren eskuduntzen erabileran, nahastutako interes publiko guztiak eta, zehazki, beste administrazioek kudeatu behar dituztenak aztertu.
- 3- Beste administrazioei euren eskuduntzak erabiltzeko burutzen duten jarduerari buruz behar duten informazioa eman.
- 4- Norberaren esparruan, beste administrazioek euren eskuduntzak eraginkortasunez betetzeko behar litzaketen elkarlan eta laguntza aktiboak eman.

Trapagarango Udalak ez dio lagundu ez Eusko Jaurlaritzari ez Sestao Berri elkarteari, zein eratzekoan eman zitzaizkion zereginak betetzen ari baita. Ekintza burutzen ere ez dio lagundu; aitzitik, familia (...)n bizitzea oztopatzen ari da; familiak 5 seme-alaba dauzka, eta eskuduntza daukan administrazioari emandako zereginak betez etxebizitza esleitu zaie.

5. Bestalde, familiak ijito kideak dauzka, eta horregatik garrantzitsua da Nazio Gutxiengoak Babesteko Esparru-Hitzarmeneko (1998ko urtarrilaren 23ko BOE) betebeharrak gogoratzea; haren arabera, botere publikoek nazio edo kultura gutxiengoei legearen aurreko berdintasun eskubidea eta legeak berdinean babesteko eskubidea bermatzeko konpromisoa daukate, eta nazio edo kultura gutxiengokoa izatean oinarritutako bazterkeria oro debekatzen da.

Europako Parlamentuaren 2008ko urtarrilaren 28ko ebazpena ere gogoratu behar da; ebazpena ijitoei lotutako europar estrategiari buruzkoa zen, eta bertan *"subraya la importancia de involucrar a las autoridades locales para garantizar la aplicación efectiva de los esfuerzos destinados a promover la integración de la población romaní y a luchar contra la discriminación"*. Horri Lisboako Itunean xedatutako Europako Batasuneko diskriminazioaren aurkako arautegia erantsi behar zaio; bertan botere publikoei betebeharrak ezartzen zaizkie, eta betebeharrak aipatu kontua baieztatu besterik ez dute egiten.

Erantzukizun politiko eta instituzionala funtsezko printzipioa da, eta giltzarria da pertsonen eskubide galera dakarten kontrabaliok deslegitimatuzko premia larrian. Erantzukizun horrek arautegiaren babes argia dauka: *"Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere"* (KEko. 9.2 art. eta EHAEko 9. art.). Udalak familia bati auzo batean bizitzea ukatzeak oinarritzko eskubideak eta ordenamendu





juridikoa urratzen ditu, kultura gutxiengoei eta diskriminazioaren aurkako borrokari buruz hartutako konpromisoen aurkakoa da eta, azken batean, ez dator herri administrazioak eredu izan behar duen erantzukizun politiko eta instituzionalarekin bat. Garrantzitsua da gogoratzea kultura solidario, bidezko, berdintasunezkoa, pertsonen eta haien eskubideen duintasunari begirunea diena indartu nahi badugu, erantzukizun politiko eta instituzionala ezinbestekoa dela.

6. Udal erroldan erregistratzea ukatzeko jokabideari dagokionez, adierazi behar dugu Trapagarango Udalak igorritako erantzunak batez ere auzokoen arbuioaz hitz egiten duela: kontseilu sektoriala biltzeko eskaera, ustez gatazkatsuak diren familien etorreraz, erroldatzeaz eta jarraitutako prozeduraz Alkateak duen iritzia jasotzen batzar-agiriak, auzoko elkarteak jasotako sinadurak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari biltzeko egindako eskaera, Udaltzaingoaren txostena eta udal erroldan erregistratzeko eskaera. Eskaera 2008ko azaroaren 11n aurkeztu zen, Trapagarango Udalak ahoz erregistratzea ukatu ondoren.

Udalak ez du erroldatzea ukatzen duen ebazpenik eman. Ukoa ahoz eta egunkarietako adierazpenetan egin du. Erroldan erregistratzeko ahalmenak pertsonen eskubideei eragiten die, eta horregatik Udalak ez erregistratzeko hartutako erabakiak ez dauka garrantzi izugarririk. Herritarrei udal erroldan erregistratzea ukatzeak auzoko bihurtzea eta, beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko (TAOL) 18. artikuluan xedatutako eskubideak eta betebeharrak izatea galarazten ditu. Bestalde, funtsezko eskubideen erabilerari eragiten dio, besteak beste: bizilekua askatasunez hautatzeko eskubidea, lurraldean mugitzeko eskubidea, edo gai publikoetan berdintasunez parte hartzeko eskubidea edota gizarte eskubideak erabiltzekoa –osasun txartela eskuratzea, adingabeak eskolatzea edo gizarte zerbitzuetako eta gizarte prestazioetako euskal sisteman sartzeko eskubidea-. Udalak ezin du udal erroldan erregistratzeko ahalmena familia bati udalerrian bizitzea ukatzeko erabili. Horrek funtsezko eskubidea mugatzen du: bizilekua askatasunez hautatzeko eskubidea, eta hura bizitzeko askatasun eskubidearen baitakoa da. Eskubide hori "Funtsezko Eskubide eta Betebeharrei buruz" izeneko Konstituzio Espainoleko II. Ataleko I. Idazpuruan jasotzen da. Konstituzio Auzitegiak eskubide horren irismenari buruz honakoa adierazi du: *"El derecho a la libre elección del domicilio no puede entenderse como derecho a fijar el domicilio en el concreto bien que uno desee sin más, sino como un límite a los poderes públicos en orden a constreñir esa elección por razones distintas a las derivadas de la libre configuración de las relaciones civiles, (art. 33 CE), del uso del suelo de acuerdo con el interés general (at. 47 CE) u otras que resulten constitucionalmente admisibles. Por eso hemos declarado que nada tiene que ver ese derecho con la validez o no de la adquisición de un inmueble (ATC 180/1984 (RTC 1984/180 AUTO), fundamento jurídico 4) o con las condiciones de la prórroga arrendaticia establecidas en la legislación de arrendamientos urbanos (AATC 227/1983 Y 236/1985 (RTC 1985/236 AUTO), pero también hemos afirmado que **la libertad de elección de residencia que atribuye a los españoles el art. 19CE comporta la obligación correlativa de***





los poderes públicos de no adoptar medidas que restrinjan u obstaculicen ese derecho fundamental (STC 8/1986 (RTC 1986/8), fundamento jurídico 3)".

Azken finean, eskubide horrek dakarrena da pertsonak leku jakin batean bizitzeko eskubidea daukatela. Non bizi nahi den askatasunez erabakitzeko eskubide subjektibo eta pertsonala da, hots, bizilekua askatasunez hautatzeko eskubidea. Botere publikoek derrigorrez bete behar dute eskubide hori.

Udalak ez dauka bizilekua askatasunez hautatzeko eskubidea mugatzerik horretarako titulu nahikorik dagoenean. Erroldan erregistratzeko ahalmenak ez dakar auzokoak hautatzeko ahalmena. Uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiko 59.2 artikulua, abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuak emandako idazketan (BLMA) honakoa xedatzen du: *“El Ayuntamiento podrá comprobar la veracidad de los datos consignados por los vecinos, exigiendo al efecto la presentación del documento nacional de identidad o tarjeta de residencia, el libro de familia, el título que legitime la ocupación de la vivienda u otros documentos análogos”*. Artikulu horrek Udalari herritarrak erregistratzerakoan aitortzen dituen datuak egiazkoak direla egiaztatze ahalmena ematen dio. Udalek errolda eratzen dute eta euren erroldak eguneratuta izateko behar diren jarduketak eta eragiketak egin behar dituzte, haietan agertzen diren datuak errealitatearekin bat etortzeko (TAOLko 17. art.). BLMAko 59.2 artikulua ez dio udalean bizitzea edo erroldan erregistratzea ukatzeko ahalmenik. BLMAko 107. artikulua berariaz jasotzen du, zehatzeko modukotzat joz, erroldatzeari dagozkion betebeharrak ez betetzea. Arautegiak ez du uzten errolda eta udalerrian bizi diren pertsonen errealitatea bat etor ez daitezen, eta haien egokitze ofizioz alta edo, hala balitz, baja dekretatzeko prozedura abiaraztea aurreikusten da. Bestalde, Udalak erroldetan dauden datuak errealitatearekin bat etortzeko erroldak eguneratuta izateko behar diren jarduketak eta eragiketak egiten ez baditu, aurreikusten du Estatistikako Institutu Nazionalak, Erroldatze Kontseiluak txostena egin ondoren, TAOLko 60. artikuluan xedatutako ordezkari egikaritzera jo ahalko duela, egokiak izan litezkeen eskumeneko errekursoak kaltetu gabe (BLMAko 62. art.). Laburbilduz, familiak Trapagaranen erroldatuta egon behar luke, benetan bizi den udalerrira delako.

7. Arartekoak auzokoen ordezkariekin izan zuen bileran familiaren etorrera auzokoen eskubideen urraketatzat jo zen. Kontua honakoa da: ez dago eskubiderik pertsona bat auzo edo udalerrira bateko auzokoa izan daitekeen hautatzeko, eta horregatik ez dago haien eskubideen urratzerik, Udalak hasieratik argitu behar zuenez.

Udalak aipatzen duen auzokoen aurkaritza ez da legezko zioa udalerrian bizitzea galarazteko. Bizilekua askatasunez hautatzeko eskubidea funtsezko eskubidea da eta legeak baino ezin du arautu eta mugatu. Konstituzio Auzitegiak honakoa adierazi du: *“Dicho art. 19, al fijar la residencia como derecho autonomía o derecho de libertad, no precisa límites concretos a su ejercicio, pero a pesar de ello, como todo derecho constitucional no es absoluto o ilimitado, puesto que el art. 53.1 de la misma Ley Fundamental permite por el juego de su cláusula general habilitante, que la Ley pueda establecer regulación de los derechos fundamentales siempre*





que se respete su contenido esencial" (martxoaren 25eko 227/1983 ATC). Hots, bizilekua askatasunez hautatzeko eskubidea haren funtsezko edukia errespetatu behar duen legeak baino ezin du mugatu, eta ez dago pertsoneri bizi nahi duten bizilekua hautatzeko eskubidea ukatzen dienik. Zentzu horretan, aurreikuspen bakarra Auzitegiren batek ebazpen judizialen bidez, zigor gehigarri bezala eta zigor prozedurari jarraitu ondoren, horrela xedatzea da. Zigor Kodeko 48 eta 57. artikuluek neurri hori xedatzen dute pertsonen aurkako delitua burutu bada. Ez dago daturik epaileren batek familia horri (...)n bizitzea debekatu dionik pentsatzeko bidea ematen duenik.

(...)ko auzokoei entzunak izateko eta auzoko elkarbizitza hobetzeko neurri egokiak proposatuz parte hartzeko eskubidea daukate, baina ezin dute galarazi familia bat auzoko etxebizitza batean bizitzea. Ikusi dugunez, bizilekua askatasunez aukeratzeko muga bakarrak jabetza pribaturako eskubidetik (KEko 33. art.) eta lurzorua interes orokorraren arabera erabiltzetik, (KEko 47. art.) datozenak dira.

Auzokoei emandako arrazoia familia "gatatzaketa" izatea da. Argudio hori ez da inondik inora legezko zioa funtsezko eskubidearen erabilera mugatzeko. Pertsona orok errugabetasun-presuntziorako daukan eskubidetik abiatuz, esan dezakegu kalifikazio horretan egiazko datu ezagunetan dokumentatzen ez den informazioaren erabilera oker eta desegokia egiten ari dela. Bestalde, datu pertsonalen eta haien emateen gainean dagoen babes araubidea gogoratu behar da. Ordenamendu juridikoak datu polizialei dagokien informazioa babesten du. Ordenamendu juridikoak norberaren eta familiaren ohorea eta intimitatea babesten ditu, Konstituzio Espainoleko 18.4 art. eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoa. Arautegi horrek pertsonak bere datuak babestuta izateko daukan eskubidea eta Administrazioek eskubide horretatik eratorrita dauzkaten betebeharrak arautzen ditu. Eskubide hori urratzen duten jokabideek zigorrezko ondorioak ere izan ditzakete (Zigor Kodeko 197. art.). Arartekoak bere esku dagoen informazioa fiskaltzari jakinaraziko dio hark legez kontrako penalen zantzurik dagoen ebazteko.

(...)ko auzokoei elkarbizitza hondatzeari dioten beldurrari eta haien alarmari kasu egin behar zaie ordenamendu juridikoa urratu gabe. Pertsonak askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea daukate eta, ondorioz, herritarren babeserako ere bai, beharrezkoa bada, baina babes hori Segurtasun Indar eta Gorputzen bidez baino ezin da eman, haiek baitira eskubide eta askatasunen erabilera askea babesteko eta herritarren segurtasuna bermatzeko ardura daukatenak (KEko 104. art.). Poliziak dauka herritarren segurtasun baldintza egokiak zaintzeko eta herritarren elkarbizitza galarazten duten oztopoak kentzeko ardura.

8. Erroldan erregistratzea udalei dagokie eta automatikoki egin ohi da, eskatzen den unean bertan, pertsonaren nortasunari eta bizi den bizilekuari buruzko agiriak aurkezterakoan. Kasu honetan, Udalak erroldatzeari uko egiten zionez, eskaera idatziz aurkeztu zen Udal Erregistroan. Trapagarango Udalak ez dio erroldatzeko eskaera idatziari erantzun, eta hori administrazio ona deritzonaren kontrakoa da, horrek pertsonen eskaerei arrazoizko epean erantzutea eskatzen baitu, eta beraz,





azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 42. artikulua xedatutako betebeharra ez du bete, hark xedatzen baitu egindako eskaera guztiei erantzuteko betebeharra: *"Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere"*. Ezarritako epean ebatzi ez denez, arestiko Legeko 43. artikulua erabiliz erroldatzeko eskaera onartutzat jo daiteke, hark xedatzen baitu herritarrek, hasitako prozedura administratiboetan, euren eskaerak onartutzat jo ditzaketela administrazioaren isiltasunagatik, berariazko ebazpenik egon gabe epea bete denean, kasu honetan bezala. Artikulu horrek holako kasuetan dagokion ebazpena eskaeraren onarpena dela ere xedatzen du, 43.4 art.: *"Ebazpen adierazia eman beharrak, 42. artikuluko lehen paragrafoan ezarrita dagoenak, araubide hau izango du:*

Administrazio-isiltasunez baietsitako kasuetan, egintzaren ondoren ebazpen adierazia ematekotan berresteko izango da."

Artikulu horiek honakoa adieraziz bukatzen dira, 43.5 art.: *"Administrazio-isiltasunez egindako administrazio-egintzak edozeinen aurrean baliarazi ahalko dira, dela administrazioan dela edozein pertsonaren aurrean, fisiko nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu. Ebazpen adierazirik ematen ez bada, egintza horiek ondorioak izango dituzte ebazpen adierazi hori eman eta jakinarazteko dagoen gehieneko epea amaitzen denetik; eta, egiaztatu, zuzenbidean onartutako edozein frogabidez egiazta daitezke, baita ebazteko eskumena duen organoak isiltasuna gertatu dela egiaztatzeko emandako ziurtagiriaz ere. Ziurtagiria eskatzen bazaio, organo horrek, gehienez ere, hamabost eguneko epean eman beharko du."*

9. Egunotan, Sestao Berri (...) familia alokatzen duen etxebizitzan bizi dadin burutzen ari den jarduketak direla-eta (...)n gertatzen ari dena larritasun handienekoa da, seme-alabak dauzkan familia bati eskubide bat erabiltzea galarazten zaiolako. Bereziki azpimarratu behar dugu haur horiek eskubideen urraketa bilatzen duen egoeraren biktima direla, eta horretarako familia salaketa larriekin laidoztatzen eta harengan aldi berean ondo oinarritutako beldurra sorrarazten ari diren adierazpen eta jokabideen bidez gauzatzen ari dela. Arartekoak, zeinek euskal herri administrazioen jokabide edo ez-egiteei dagokienez pertsonen eskubideak, batez ere egoera ahulean dauden pertsonenak –eta haurrak bereziki ahulak dira-, babesten direla zaindu behar baitu, ahotsa altxatu behar du haur horiek pairatzen duten egoera salatzeko eta, ondorioz, eskuduntza daukaten administrazioei, eta bereziki Trapagarango Udalari, haur horien osotasun fisiko eta morala, segurtasuna eta ongizatea babesteko eskura dauzkan bitarteko guztiak jar ditzatela eskatzeko.





Edonola ere, Trapagarango Udalak legea betetzeko eta betearazteko eta erabiltzea galarazi nahi diren eskubideak behar bezala babesteko betebeharra dauka, eta inolaz ere ezin ditu bere erantzukizunak alde batera utzi eta are gutxiago aipatu ditugun gertaerak elikatu.

Betebehar hori Eusko Jaurlaritzari eta Sestaoko Udalari ere dagokie, haiek Sestao Berriko langileen segurtasuna eta askatasuna zaindu behar baitituzte, baita familia hori (...)ko etxebizitzan bizitzeko jarduketak kudeatzen eta guztiz onartezinak diren baldintzak eta presioa jasaten ari diren langileena ere.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa ematen da

4/2009 GOMENDIOA, Trapagarango Udalarentzat

Trapagarango Udalak, beharrezko izapideen ondoren, udal erroldako erregistratze egiaztageria eman dezan.

(...) familiari auzokoa izatea onar diezaion, onarpen horrek dakartzan eskubide eta betebehar guztiekin.

Ordenamendu juridikoaren arabera joka dezan, positibo eta aktiboki (...) familia (...)n alokatzen duen etxebizitzan bizitzera eramango duten jarduketan kudeaketan parte hartuz.

(...) auzoan gizarte elkarbizitza normalizatua ahalbidetzeko behar diren jarduketak burutu ditzan.

